

1 Idazlan honek EKBren Nazio Batzordeak koordinazio-erakundea suntsitzea erabaki zuen batzarraren egindako agurhitzaldia ia bere horretan jasotzen du, 3. atalean. BAT aldizkariaren zerbaki honetarako, ikuspegia zabaldu nahi izan dut, euskararen aldeko mugimendu sozialaren 25 urteotako dinamikaren barruan kokatuz EKBren 16 urteak.

2 Argitaratu berriak dituzte ikastaro hartako ekarpen guztiak Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak izeneko liburuan (Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1998). Horretan argibide eta azterketa historiko baliozkoak eskaini dituzte Joseba Intxaustik (Espainiako gerra zibilaren aurreko Eusko Pizkundarainokoa) eta Kike Amonarrizek eta Iñaki Arrutik (gerra zibilaren ondorengokoa). 1993an emandako hitzaldiak dira liburuan bildutakoak. Horregatik azken bi autoreek posdata laburra erantsi nahi izan diote hitzaldiari, 1993az geroztik gertaturiko "aldaketa sakonak" aipatuz, Euskararen Unibertsoaren eta Kontseiluaren sorrera, bestak beste. Neronek ere, beste posdata txiki batean, gauza bera utzi nuen nabarmenduta. (Liburu berean aurkitu ahal izango du irakurleak katalanaren aldeko mugimendu sozialaren historia berria ere, Isidor Mari-k emandako hitzaldia).

3 1995eko UEUren Soziolinguistika sailean emandako hitzaldian EGM laburdura horixe erabili nuen Euskararen aldeko Gizarte-Mungimendua adierazteko; berbera hartuko dut hemen ere, eta horixe erabiliko, erraztasunaren aldera (Ikastaro hartan emandako hitzaldiak BAT. Soziolinguistika aldizkaria-k argitaratu zituen 16. zenbakian, 1995, urria).

4 BAT Soziolinguistika Aldizkaria-k, bi zenbaki monografiko eskaintzeaz gain Euskararen aldeko mugimendu sozialari (6, 1991 eta 16, 1995), sail berezi bat ireki zuen, zenbaki bakoitzean erakunde sozial jakin baten berri emateko. Horietako hainbaten aurkezpena ikus daiteke zenbaki banatan: Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea (3/4), Gal-tzaundi Euskara-taldea (5), Euskal Kultur Erakundea (6), Bilbo Euskalduntzen (7/8), Oinarriak (9), UEMA (10), Bizkai-ko Abokatuen Kolegioko Euskara Batzordea (11), Udaletako Euskara Teknikarien Sarea (12), Euskaraz Biz (13/14), Entseituarrean aldizkaria (15), Zenbat Gara Kultur Elkarte (16).



bat
Soziolinguistika
aldizkaria

DOSSIERRA

31. zk / 1999ko aztaria

Euskal Kulturaren Batzarrea

EUSKARAREN ALDEKO GIZARTE-MUGIMENDUAREN 25 URTEOK EKBren EKARPENA¹

Paulo Agirrebaltzategi
EKBko lehendakari ohia

Duela sei urte "Euskararen aldeko mugimendu sozialen zeregina etorki-zunean" izeneko hitzaldia eman nuen EHUren udako ikastaroetako batean². Orduan aurrera begiratzeko agindua eman zidaten antolatzaileek; orain atzera begiratzeko eskatu dit BAT aldizkariak. Egokia eta kontu handikoa da, EKBek (Euskal Kulturaren Batzarreak) Euskararen Gizarte-Erakundeen Kontseiluari lekua egin eta bidea eman dion honetan, "Euskararen aldeko Gizarte-Mugimenduari" (EGMren)³ azken hogeitabost urteotako balantze kritikoa egitea, 3. milurteko aurrerako bidea jabekuntza hobez ireki ahal izateko. EGMren fenomenoaz bestelako idazlan eta liburu teoriko-kritiko, deskribatzaile nahiz historiko ugari samar argitaratu izan da azken hogei urte hauetan, hainbat hitzaldi, mahainguru eta eztabaidatoko gaia izateaz gain. Horien bibliografia laburra (ez osoa) idazlan honen eranskinean ikus dezake irakurleak⁴.

Tituluan adierazita dagoenez, testuinguru zabal horren barruan EKBren ekarpenaz jardungo naiz bereziki oraingo honetan. EGMk berak euskalgintzaren eta euskal kulturgintzaren 25 urteotako dinamika osoaren barruan azaltzea mereziko luke, euskalgintza eta euskal kulturgintza guztiz batera doazelako, eta euskararen aldeko mugimendu sozialaren ibilbidea ere oso lotua dagoelako euskal kulturgintzaren gorabeheri. Hemen, ezin dugu ordea, ez eta modu eskematiko ere euskal kulturgintzaren azken 25 urteotako ibilbidea sintetiza-

tu. Irakurleak, bere aldetik egina lukeen sintesiaren edo landua lukeen iritzia-
ren gain irakurriko ditu, beraz, ondorengo gogoetok. Dena dela, idazteko
litzateke euskal kulturgintzaren azken 25 urteotako historia, gainean dugun
hirugarren milurtekoari begira.

1.- 1976-77: INDAR SOZIAL BERRIEN ASKATZEA. KOORDINAZIOA ETA PLANGINTZA

Zergatik 25 urteak, eta zergatik 1976etik hasita? Mendearen azken laurdena
borobiltzearen soilik? Belaunaldia osorik hartzearen bakarrik? Begirada eta
azalpena eskematizatzeko joeraz harantza, badago arrazoi objektiborik, hogeitabost
urteon epea hartzeko, euskararen aldeko gizarte-mugimenduaren iragan
hurbilari atzerako begirada kritikoa ematean, beti ere gogoan edukiz
2001ean hasiko dugun milurtea eta hortik aurrera irekitzen zaigun etorkizuna.
Hego Euskal Herrian gertakari erabakigarriak izan ziren 1975eko azaroaren
20ko hura eta ondoko urteetako aldaketa politikosozialak, orduan sortu edo
suspertu ziren edonolako mugimendu sozialentzat; euskalgintzan eta euskal
kulturgintzan ere indar sozial berriak askatu ziren orduan, eta ordurarteko
euskararen aldeko talde, elkarte eta erakundeei perspektiba berriak ireki
zitzaizkien beren ekimenerako: batez ere euskalgintzako sail ezberdinetako
erakundeak hobeto koordinatzeko eta beren lana luzaroagoko planen barruan
antolatzeko, eta horrekin batera euskararen aldeko gizarte-mugimendu zabala
– eta mobilizazioa– eratu edota bizkortzeko⁵. Hegoaldean euskalgintzan eta
euskal kulturgintzan gertaturiko aldaketek zuzeneko eragina eduki izan dute,
ordea, Iparraldean ere. Horregatik 25 urteon (1976-2000) atzera-aurrerako
ikuspegiarekin joango dira hemengo azterketa-gogoetak.

Belaunaldi horren lehen bi urteak (1976-77) oso adierazgarriak dira⁶.
EGMen dinamika berria 1976an bertan nabari da euskal gizartean. Urte horretan
Bizkaiko euskalgintzako hainbat sailtetako erakunde, talde eta lagun elkar-
tu ziren, “Euskarari buruz agiria” (1976ko ekainekoa) sinatu eta zabaltzeko,
non euskararen egoera aztertzeaz gain, lehen urrats gisa elebitasuna eskatu
baitzuten, Irakaskuntzan, Administrazio publikoan eta Komunikabideetan
euskara ofizialki sartuz⁷. Bertan esanda dagoenez, “Agiri hau, era guztitako
adhesioetara zabaldurik dago”. Ildo beretik eta hilabete batzuk geroxeago
(1977ko urtarrilaren 2an) beste agiria bat (Euskararen ofizialkidetasunaren alde-
ko agiria) sinatu zuten 711 elkarte eta erakundeak, euskararen ofizialkidetasu-
na eskatzen zuena eta hainbat neurri zehatz proposatzen zituen Irakaskuntzari,
Komunikabideei eta Administrazio publikoari begira; gainera sinatzaileek
berentzat zenbait konpromiso hartzeaz gain, dei egin zien agiriak gizarteko
era guztietako erakundeei euskararen berreskurapenaren bidean sartzeko.
150.000 lagunengatik bildu zituzten, agiriari euskarri sozial zabala emateko;
eta horren aldeko manifestaldia ere antolatu zuten Donostian, baina debekatu
egin zuten hori orduko agintariek⁸. Hona zer zioen Agiriak, herri-
mugimenduaren garrantzia aipatuz: “Izenpetzaileok, Gobernuarekiko eta Ofi-
zial Erakundeekiko esijentziak aldarrikatuaz ere, konbentzituak gaude herri
osoaren ekintza etengabeak baizik ez duela aurrera aterako Herriaren proble-
matika eta, honen barrenean, euskararena eta euskal kulturarena”⁹. 1977an

5 Aurreko urteetan antolatzen eta zabaltzen ari zen, ezaguna da, talde, elkarte eta erakunde ugari euskalgintzan: Hainbat ikastetxetako edo herri-azotako EKTak eta euskara-elkarteak, UEU (1973), eta bereziki Ikastolak eta Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundea (AEK, 1966an sortua). Egoera sozio-politikoaren aldaketak baldintza hobek eskaintzen dizkio horietako bakoitzari luzaragorako eta segurtasun handixeagoz bere plangintza egiteko; bestalde, sail bakoitzeko talde eta elkarten koordinazioa beste sailtetara zabaldu eta euskararen aldeko ekimen globalean eta plangintza orokorretan pentsatzeko bidea ireki zuen egoera sozio-politiko berriak. Ikastolen Elkarte eta AEK, biak euskalgintzaren eremu jakin bati begirako erakunde-koordinakundeak izanik, euskal mundu osoa biltzeko eta mobilizatzeko gauza izan ziren garai berrian, eta gauza dira oraindik ere: bereziki Ikastolen Elkartearen Kilometroak eta beste (1977an hasita, urtero) eta AEKk bi urtez behin antolatu ohi duen Korrika, bien sektoretik kanpoko milaka herritar erakartzen dituztenak.

6 Kike Amonarriz eta Iñaki Arrutik beren “Euskararen aldeko mugimendu sozialak gaur” artikuluan (Hizkuntzen aldeko mugimendu soziala, aip. lib. 147-183) 1980rarte luzatu zuten mugimendu sozialaren gerraondoko historiaren lehen fasea, eta hortik aurrera abiatzen dute “Mugimendu sozial euskaltzale berria”, EHeren sortzearekin batera (1979aren azken aldera), azken fasea 1990tik aurrera ipiniz. Uste dudanez, 1976-77ra aurreratu behar dugu euskararen mugimendu sozial berriaren abiapuntua, berehala agertuko ditugun arrazoiengatik. Bestalde, 25 urteotako azken fasearen hasiera 1992an ipintzea egiokiagoa ote den nago, eta ez 1990ean; jakina, fase hau ez da amaitzen 1993an, aipaturiko autoreek beraiek posdatan iradokitzen dutenez, eta Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren sorreraino luza daitekeela uste dut (1997 edo 1998).

7 Honako erakundeek sinatu zuten agiria hura: Elebitasunerako herrietako batzordeak, hainbat herritako famili elkarteak, eskoletako guraso-elkarteak, Unibertsitateetako euskara-talde eta elkarteak, hamar ikastolek eta kultur talde ugariak, bestelako erakunde eta lagunbanako zenbaitekin batera.

8 Debeku horri erantzunez edo, 1977ko martxoaren 27an Donostiako Herri-Irriatiak "24 ordu euskaraz" emanaldia egin zuen, benetako mobilizazio sozio-kulturala gertatu zena.

9 Gerora ideia beretsua berea egingo du Eusko Jaurlaritzak berriak. Bere lehen programakoa du helburu hau: "... animar, coordinar y apoyar las iniciativas culturales existentes..." (euskarazkoak, esan nahi da, jakina). Eta gehiago: "El Gobierno laborará intensamente y pondrá los medios para que esta coordinación empiece a darse en el más breve plazo posible. Esto es especialmente válido, como ya ha sido apuntado arriba, tratándose del desarrollo y adecuación del euskara". Erakunde sozialen eta horien ekin-tzen koordinazioa Jaurlaritzatik? Zenbait lagun eta taldek euskalgintzaren erantzukizun nagusia eta ekimen behinena erakunde publiko "berrien" eskutan uzteko joera hartu zuen, erakunde herritarren "protagonismoaren" garaia gaindituztat emanez edo.

10 Gauza bat da, ordea, erakunde publikoen koordinazio-lana, eta besterik euskalgintzako gizarte-erakundeek beharrezkotzat jotzen duten beren arteko koordinazioa, plangintza eta ekin-tza bateratua bideratzeko.

11 Donostiako bileretako bateko aktak, erdaraz idatzitakoak, zioenez, "Si un pueblo se manifiesta como tal a través de su expresión cultural, deberemos crear una fuerza popular tal que imponga un resurgir del País Vasco, aplastado hasta hoy en todas sus expresiones culturales".

12 Aurreko urtetan hainbat adituren lan-kidetzaz burutu zuen Euskaltzaindiak azterketa-gogoeta hori, euskararen historia eta egoerari modu kritikoa begiratzeko ziona. Urtebete geroago argitaratu zuen Euskaltzaindiak berak, SIADECOk egindako lehen azterketa sozio-linguistikoko orokorraren sintesia, Hizkuntz borroka Euskal Herrian izenarekin.

13 "Euskal Herrian Euskaraz elkartean agiria", in: Anaitasuna XI, 1979 (391. zenb.), 22. or.

antolatu zuten Gipuzkoako Ikastolek lehen aldikoz Kilometroak ekitaldia, gero bestelako izenekin beste herrialdeetara zabalduko zena; azken 25 urteotan oihartzun eta garrantzi berezia izan dute Ikastolen ekitaldi horiek EGMn.

Agiri, sinadura-bilketa eta manifestaldi bateratuez gain, ordea, euskararen aldeko indar eta erakundeen arteko koordinazio zabala landu beharra nabarmendu zen, dinamika sozial berriari erantzuna emateko. Agian hortxe dago azken hogeitabost urteotako mugimenduaren kezka eta ahalegin nagusietakoa eta aurrekotik nolabait bereizten duena: euskalgintzako sailen arteko koordinazioa. Horrixe erantzun nahian eratu da, azken batez, 25 urteren buruan Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua ere¹⁰.

1976koa bertakoa da lehen ahalegina, kezka horri erantzun gura izan ziona. Uda hartan zabaldu zuen "Euskal kultur erakunde orokor eta koordinatzaile bat" izeneko agiria UEUK; eta udazkenean antolatu zuen Durangon bilera berezia hori bideratzeko; hango proposamena, ordea, ez zen gauzatzerik izan. Baina premia biziaren aurrean ezin etsi, eta Nafarroatik bultzatu zuten beste ahalegin bat, ildo beretik zihoana, handik gutxira. 1977an zabalduko deiak honako titulua zuen: "Euskal kulturaren aldeko erakunde nazional bat eraikitze hastapenetan" Horretarako "organismo-gestora" sortu beharra aipatzen zuen. Plangintza eta koordinazioaren asmoak ageri dira nagusi ekimen horren dokumentuetan¹¹. Honako helburuok ipini zizkion "organismo-gestora" izatekoari, erdaraz idatzitako aktan: "1. Sensibilización del Pueblo en su propia cultura. 2. Reivindicación de derechos que faciliten y mejoren su expresión cultural. 3. Planificación de los diferentes sectores". Etxepare izena hartu zuen koordinazio-proiektu berriak. Hainbat bilera eta urrats egin ondoren, bertan behera geratu zen hori ere, kanpaina politikoak eta hauteskundeak hasi zirenean. –Geroago ere gertatuko zenaren adierazgarria izan zen hura, behin baino gehiagotan "arazo" politikoak kultur munduko proiektuei nagusituko baitzaie edota horiek baldintzatuko baitituzte neurriren batez behintzat–.

Koordinazio iraunkorrik ezean, mobilizazio indartsutan agertu zen orduan EGM. Horietan sonatuena Bai Euskarari izan zen, jakina, 1978ko maiatza-ekainetan Euskaltzaindiak antolatua, lehetxeago *Euskararen Liburu Zuria* kaleratu ondoren¹². Hilabete batzuetako mobilizazio arrakastatsuak are nabariago ipini zuen, ordea, mugimendu sozialeko sektoreen arteko koordinazio zabal eta iraunkorraren premia. Horren ekin-tza-ildoetako bat beti jendeen mobilizazioa izango da: euskararen errebindikazioen alde nahiz horrekiko erasoen aurka.

1979an Euskal Herrian Euskaraz (EHE)k hartu zuen bere eskuetan Etxepare-k utzitako "gestoraren" asmoa, euskararen aldeko mugimendu orokorra suspertzeko eta eratzeko –orduan Euskal Herriko bertako indar eta erakunde politiko abertzaleek utzia omen zuten euskararen benetako defentsarako: "...amnistia eta beste borroka politikoen alde sortu diren 'gestora' delakoen antzera, euskararen aldeko 'talde eragileak' sortu behar direla pentsatzen dugu, euskara espezifikoki diglosiatik eta heriotzatik salbatzeko, hemengo 'alderdi abertzaleek' zoritxarrez, betekizun hori gehien batean ahaztu dutelako"¹³. Erakunde berriaren lehen ekitaldi sozial eta oihartzun handikoa, Donostian antolatutako manifestaldi handia izan zen (1980, apirilak 19; 20.000 lagun

inguru bildu zituen).

Euskalgintzako jokabide “sektorialista” gainditu nahi zuen EHEk, sail guztietako jendea elkartzuz, eta bakoitza bere sailean jardunez; baina ez zen kultura eta euskalgintzako sektoreen arteko koordinazioa lortzeko eratu zuzenean. Hala ere, 1981ean zabalduko “Euskararen erabilpenaren dinamika bat sortzea” agirian, euskalgintzako sektore guztiei egin zien EHEk deia, agirian azalduko helburua lortzen parte hartzeko denek batera. Azkenik 1982an koordinazio sektoreartekoa bideratzeko dei esplizitua etorri zen Eskola Publikotik, Adarra pedagogi taldetik hain zuzen.

Gogoeta hau egitean, beraz, EKBren 16 urteko bizitzako 1983-1999 urteak, beren horretan mugatuta, hartu beharrean, egokia iruditu zait horren historia euskalgintzaren herri-mugimenduaren 25 urteotako (1976-2000) dinamikaren barruan ipintzea testuinguru zabalago horren baitan argitu ahal delako hobeto EKBren 16 urtetako ibilbidea, etorkizunari irekia. Modu aski eskematikoan agertuko dut hori.

2. EGM 25 URTEOTAN

Goian aipaturiko EHUko hitzaldian hiru motatako erakundeak (taldeak, elkarteak) bereizi nituen, ekimen sozialeko euskalgintza nolabait euskarrizten eta burutzen dutenak: 1) tekniko-enpresarialak, 2) profesional-sindikalak, 3) herritar-militanteak; eta horiek denak izanik, bakoitza bere erara, mugimendu sozial zabalaren oinarri eta osagarri, hala ere azpimarratu nuen han, mugimendu sozial horren erdigunea hirugarren mailakoetan dagoela¹⁴.

Ekimen sozialeko erakundeok erakunde publikoetatik bereizten ditugu, hasteko. Hain zuzen ere, hogeitabost urteotako EGMren dinamika berria berehala aurkitzen da datu garrantzizko honekin: Hego Euskal Herrian sortuak diren edo sortuz doazen erakunde publiko “berriekin”, alegia: Gernikako Estatutua eta Eusko Jaurlaritza (1979-80); Nafarroako Gobernua (1979) eta Foru-Hobekuntzarako Lege Organikoa (1982) eta Gobernu Forala (1983); Foru Aldundiak (1979); udal berriak (1979). Eta geroxeago “Euskararen Erabilpena araukatzeko Oinarrizko Legea” (1982) eta Hizkuntz Politikarako Idazkaritza (1983) EAEn; Nafarroan, berriz, Euskarari buruzko Foru Legea (1986) eta Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza (1987). Gainera erakunde publiko hainbatetan doaz eratuz itzulpen-zerbitzuak edo euskara-zerbitzuak, euskara-teknikarien lanposotuak, etab.¹⁵

Hori dena guztiz berria da, jakina, euskararen aldeko mugimendu sozialarentzat. Euskararen aldeko politika egingo duten erakunde publikoak noiz edukiko urte luzetan zain egon ondoren, nola edo hala alde dauden erakunde publiko berriei buruz beren taktika eta estrategia definitu eta bideratu beharrean aurkitzen dira EGM eta horren barruko talde, elkarte eta erakunde bakoitza. Hori egin behar dute, gainera, dinamika, gatazka eta baldintza politiko, sozial eta ekonomiko berrien barruan.

Lehendik zetozen euskalgintzako erakunde sozialez gain –bereziki Ikastolen Elkartea eta AEK ditugu kontuan–, Euskal Herrian Euskaraz (EHE) sortu zen (ziren¹⁶) 1979an. Honela definitu zituzten horiek: “Elkarleen izaera berezia, erreibindikatzailea edo borrokatzailea izango da. Ez dira mugituko, beraz,

Euskalgintzako jokabide “sektorialista” gainditu nahi zuen EHEk, sail guztietako jendea elkartzuz, eta bakoitza bere sailean jardunez; baina ez zen kultura eta euskalgintzako sektoreen arteko koordinazioa lortzeko eratu zuzenean.

14 Aip. art., 196-197 orr.

15 Iparraldean ezaguna da, lehengo erakunde publiko zaharrek jarraitzen dutela eta euskaraz ez duela orain arte inolako babes juridikorik, kargudun publiko zenbaiten euskararekiko jarrera eta jokabide politikoa zerbait aldatu baldin bada ere, hoberako, esan dezagun. Euskararen aldeko politikarako lehen erakunde semi-publikoa EKE (Euskal Kultur Erakunde) da (1990).

16 Pluralean erabili zuen batez ere hasiera hartan bere izena, herri eta auzoetako elkarten batasun gisa zegoelako pentsatuta eta eratu EHE: horietako bakoitza zen lekuko Euskal Herrian Euskaraz elkartea. Dena dela, gero erabileraren arabera, singularrean erabiliko dut hemen EHE.

***Euskalgintzan
Erakunde publikoek eta
erakunde sozialek
–herritarrek– bete
beharreko eginkizuna
izan zen, izan ere,
ordutik aurrera urte
luzetan eztabaidagai
nagusietakoa.***

17 “Euskal Herrian euskaraz’ elkarteen agiria”, in: Anaitasuna (391. zenb., 1979-XI, 22. or.). Arestian aipatu dugu erakunde publikoekiko jarreraren arazoari dagokionez, horiei buruzko kritika biziaren gain sortu zen EHE. “... Talde eragileak sortu..., euskara espezifikoki diglosiatik eta heriotzatik salbatzeko, hemengo ‘alderdi abertzaleek’ zoritxarrez, betekizun hori gehien baten ahaztuta dutelako” (ibid.).

18 Horren okerreko ondorioetako bat, “mugimendu sozialaren ghetizazioa” (edo “periferizazioa”) ikusi dute Kike Amonarriz eta Iñaki Arrutik (aip. art., 155, 162-163). Egia esan, ez da ondo ulertzen zer esan nahi duten “periferizazio” (edota getizazio) horrekin; haste-ko, badirudi “erabaki-guneetatik kanpo gelditzea” dela periferizazioa, boteredunek zapuztuta edo (F. Muniozgurenen testu bat aipatuz); gero, berriz, zapuzketa euskal gizarteari berari egozten diote, eta gizarteariko berarekiko ulertzen dute nonbait EHeren periferizazioa. Agian badute biek zerikusirik batak bestearekin, baina berez fenomeno sozio-politiko oso ezberdinak dira, eta bakoitza bere aldetik aztertzea; elkarrekiko eraginik izatekotan, konplexuago bihurtuko litzateke fenomeno, analisi sakonagoa eskatuko lukeena.

19 Horiekin batera, eta oihartzun sozial txikiagoa izan badute ere, gogoan izatekoak dira lehendik ziharduten erakunde herritar hauek: Kardaberaz bazkuna (aspalditokoa), Kili-kili (1967an sortua), Euskerazaintza (1979an sortua). besteak beste.

kulturaren edo teknikaren munduan, errebindikazio edo eta borrokaren mailan baino; nahiz eta, jakina, osoki apoiatu eta ontzat eman euskal kulturaren ekintza¹⁷. Horren arabera, Euskararen egoerari buruzko jaberazpen-lana egiteaz gain, erakunde publikoen aurrean errebindikazioak modu bizian jarri izan ditu EHEk. Euskal Herri osoko herrialdeetan, eta herri askotan egon da edota dago antolatutik, taldeka. Bere barne-antolamenduan eta zabalkunde sozialean gorabeherak izan baditu ere geroko urteetan, oso garrantzizkoa izan da EHeren ahalegina, bereziki tinkoa, euskararen defentsan, bere akats eta guzti. Zuzeneko ekintzena izan zen EHeren jardunbide nagusia, erakunde politikoen, sozialen eta publikoen kritika eta kontrolaz gain. Zalantzarik gabe, tirabirak sortu zituen maiz horrek erakunde publikoen eta EHeren artean.¹⁸

Euskalgintzan Erakunde publikoek eta erakunde sozialek –herritarrek– bete beharreko eginkizuna izan zen, izan ere, ordutik aurrera urte luzetan eztabaidagai nagusietakoa. Eta horren arabera, bi aldetakoen arteko harreman-modua (salaketa, kontrola, elkarrizketa, lankidetzeta, autonomia, menpekotasuna) definitu eta bideratzeak eman ditu buruhausterik handienetakoak. Nola-baiteko lehia ere egon izan da, protagonismoa bi aldetako zeini legokiokoen erabaki nahian edo.

2.1. EGMREN UGARIA. EKB ETA AED

Euskalgintzako EGM oso aberatsa izan da hogeitabost urteotan. Aurretik lanean eta ekinean ziharduten eta hogeitabost urteotako EGMn pisu hain handiak eduki izan dituzten Ikastolen Elkartea, AEK eta UEUz gain¹⁹, beste hainbat talde, elkarte eta erakunde sektorial izendatzekoa da hemen, aipatu gabe beste hainbat geratuko dela jakinik, hala ere. –25 urteko perspektiban ari garenez gainera, aipatzekoak dira urte horietakoren batzutan bizirik eta jardunean aritu diren talde eta elkarteak, eta beharbada une honetan geratuta edo desagertuta daudenak ere–.

Arabako Euskaltzaleon Elkarunea

Argia

Arrano Beltza. Euskal Tokia

Artez

Aurten bai

Bagare

Bertsozaleen Elkartea

Bilbo euskalduntzen (1990)

Bilboko Afariak

Bilboko Kafe Antzokia

Bizkaiko Abokatuen Kolegioko Euskara Batzordea

Deihadar

Elhuyar

Elkarlanean Fundazioa

Entseiukarrean aldizkaria (Deustu)

Euskal Konfederazioa

Euskalan

Euskaldunon Egunkaria
Euskaraz bizi
Euskaraz Bizitzeko Hitzarmena
Euskarazaintza
Galtzaundi Euskara-taldea
Hik Hasi
IKA
Ikuskin
Ilazki
Jakin
Kardaberaz
Karmel
Kili-Kili
Labayru Ikastegia
Maizpide
Oinarriak
Orio Produkzioak
Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea (OEE)
Pizkundea
Rikardo Arregi Euskaltgiak
Sortu (1979)
Tinko
Topagunea (Euskara Elkartek eta Herri Aldizkariak)
Udaletako Euskara Teknikarien Sarea (UETS)
Urrats
UZEI (1977)
Zenbat Gara Kultur Elkartea

Topagunea (Euskara Elkartea eta Herri Aldizkariak) ageri da zerrenda horretan. Izan ere, hiri, herri edo auzoetako Euskara-elkartek ez ditut zerrendan izendatu banan banan; horietako 32 elkarte daude Topagunea koordinatzen elkaturik une honetan²⁰.

Aipaturiko elkarte bakoitzari etiketarik jartzeko inolako asmorik gabe, hiru ikuspegi nagusi bereziko nituzke azken hogeitabost urteotako euskalgintzako mugimendu soziala osatzen duten erakunden artean, batez ere erakunde publikoek eta erakunde sozialek euskalgintzari begira betetzeko eginkizunari buruz duten irizpideari begira:

1. Ikuspegi politiko-instituzionala: Hau da, erakunde publikoak euskaren alde ditugunetik eta ditugun neurrian behintzat, beraiei dagokie funtsean euskararen normalkuntza gidatzea eta bultzatzea. Indar sozialak erakunde publikoek gidaritzapean eta babesean jokatu behar dute. Botere publikoek aldetik ezezik, hainbat herritarren aldetik ere horrelako jarrera nagusitu izan da.

2. Ikuspegi antropologiko-komunitarioa: Hizkuntz komunitatea da funtsezkoena eta hori indartu eta trinkotu behar da euskararen inguruan, benetan E.H.ren euskalduntzea lortuko bada. Botere politikoaren eta erakunde publikoen eragina bigarren mailakoa da.

3. Ikuspegi soziologiko-dialektikoa: Euskararen normalkuntza eta berres-

20 Laukiko talde, elkarte era erakunde gehienak Euskararen Gizarte Erakunde-en Kontseiluan sartuta daude. Euskararen Mugimendu Sozialaren eratzean funtsezkoak dira, zalantzarik gabe, leku (hiri, herri, auzo) bakoitzeko euskara-elkartek. Horiek eta horien inguruan sorturiko hedabideak (aldizkari, irrati, telebista) elkaturik daude Topagunea izeneko erakundean. Editorialak ez ditut zerrendan sartu, nahiz eta gehienbat euskaraz ari, ez eta erakunde publikoetako euskara-zerbitzuak ere, UETS ezik.

21 Bi "erakunde-koordinakundeek" beren aldizkariak sortu zituzten gainera, bateratsu: AEDk Jazten (bederatzi zenbaki argitaratu zituen), eta EKBk BAT. Soziolinguistika aldizkaria (hasieran lauhilabetekaria, gaur egun hiru-hilabetekaria). Bestalde, AEDk Txepetxek euskalgintzarentzat egindako ekarpen teorikoa (Un futuro para nuestro Pueblo) errebindikatu eta zabalduko du bereziki.

22 EKBren hasierako helburuetan zegoen, nazio mailan bezala, herrietan ere antolatzea EKBak, bertako euskalgintzako sailtako taldeen eta elkarten lana modu iraunkorrean koordinatzeko. Zenbait herritan sortu ziren horrelako erakundeak, EKBren babesean –Baztango EKB izan zen horietan ezagunena–. 1989ko irailaren 23an bilera berezia antolatu zuen EKBk Durangon "Herri mailako euskararen planifikazioa eta herrietako EKBak" gaiari buruzkoa; bertan euskararen aldeko herri-mailako erakundeen antolakuntza ezberdinak aztertu ziren (euskara taldeak, euskal tokiak, koordinakundeak). Ahaletan zaila gertatu zen, ordea, EKBren koordinazio-asmoa herri mailan gauzatzea

23 Informazio berriagoak egongo badira ere, interesgarria da Koro Zumalabek 1992an, BAT aldizkarian eginiko orduko herrietako euskara-elkarteen aurkezpena. Ik. “Herrietako euskara-elkarreak”, in: BAT. Soziolinguistika Aldizkaria (6, 1992, 53, 66 orr.). 16 elkarteren berri ematen du artikuluak.

24 “Oinarriak. Euskararen aldeko plataformaren batzarra” izenekoa Nafarroan euskararen aldeko “oinarriak” finkatzeko eta defendatzeko sortu zen. Hori eratzeko txostenaren azken atala koordinazio nazionalaz ari da. Azken paragrafoan honako hau dio: “Izan badago funtzio edo betebeharrak hoiak betetzeko aspaldian jaito zen erakundea, Euskal Kulturaren Batzarra. Beraz, osatuko dugun batzordetik ordezkari bat bertan koordinatzea beharrezkoa ikusten da”.

25 Deiar euskararen aldeko errebinkazio eta ekintza konkretuetara mugatu zen. Bazen lehenagotik Pizkundera. Fédération des Associations Culturelles Basques izeneko koordinakundea, mota guztietako kultur erakundeak bateratzen zituen. Euskal Konfederazioa, oster, Deiar baino erakunde iraunkor eta finkoagoa izateko xedez eratu zen, eta Pizkundera baino atxekiago zuzenean euskarari eta horren normal-kuntzari.

26 Markatzekoa da AED bera, hasieratik, eta herrietako beste zenbait euskara-elkarte bezala, EKBkoak izan direla. Beraz, kontradikzioak eta eztabaidak nolabait mugimendu sozial berberaren barrukoak izan dira. Garrantzizkoa izan da herrietako euskara-elkarteen ekarpen eta lankidetzaren baliozkoa euskararen aldeko ekimen eta mobilizazio nazionalen, sektorialen nahiz orokorren, helburuetarako: Ikastolen Elkartearen Kilo-metroak (Gipuzkoan), Ibilaldia (Bizkaian, Araba Euskaraz, Nafarroa oinez, Iparraldeko Herri-urrats, AEKren Korrika, EKBren Euskararen Eguna(k), Ikastolen eta EKBren arteko Bateginik kanpaina, Euskaldunon Egunkaria, etab., etab.

kurapen osoak indar eta eragile sozialean eta horien artikulazioan oinarritu behar du, ekintza planifikatuaren bidez euskaldunengan eta gizarte osoan eragingo duen mugimendu indartsua eratuz. Botere politikoa eta erakunde publikoek eginkizun eta erantzukizun guztiz espezifikoak eta behar beharrezkoa dute horretan, hizkuntza politika planifikatu, markatu eta gidatzeko, euskarari lehenetsua emanez.

Ikuspegi “filosofiko” horiek jarrera eta jokabide praktikoa bihurtzen dira, jakina, herritar bakoitzarentzat eta erakunde sozial bakoitzarentzat. Hiru pentsamolde eta jokabideak dituzte beren arrazoiak, eta hirurak dira kontutan hartzekoak, euskal gizarte biziaren adierazgarritzat. Sarritan, ordea, horien arteko tirabirak eta kontradikzioak biziak –eta batzutan latzeziak– izan dira; behin baino gehiagotan kaltegarriak gainera euskalgintzarako, horien arteko haserreak eta etenak eragin dituztenean–.

EGMren mugimenduaren ugaritasun –eta dialektika– horren barruan kokatu behar ditugu AED (Arrasate Euskaldun Dezagun) eta EKB (Euskal Kulturaren Batzarra), biak urte berean, 1983an, sortuak: Batak eta besteak, bakoitzak bere teoria landuko du EGMri buruz, eta bakoitzak markatuko du bere jokabidea euskalgintzako lan sozialari begira²¹. Euskalgintza eta euskal kulturagintzako sailtan ziharduten talde, elkarte eta erakunde sozialen koordinaziorako eratu zen EKB, Euskal Herri osoa hartuz bere ikuspegian eta bere jardunean²²: Euskararen berreskurapen osoa eta normalkuntza, eta horretarako plangintza orokorra zituen bere ideia nagusiak. Arrasate herriko euskaldunak (eta bertako talde eta elkarteak) euskalgintza-ekinean bateratzeko sortu zen AED. Herria euskalduntzeko euskaldunen komunitatea trinkotu eta sendotu beharra zuen bere asmo eragile funtsezkoa.

Ondorengo urteetan zabalduz joan zen AEDk abiatutako herrietako euskara-elkarteen mugimendua. Uste dudanez, nahikoa arrakastatsua izan da herrietako euskara-elkarteen fenomeno hori urte hauetan; emaitza onak eman ditu euskalgintan, eta garrantzizkoa izan da euskararen aldeko mugimendu sozial osoari begira²³.

EKBren antzera bestelako koordinakundeak ere, sektoreetako taldeen eta elkarten artekoak eta gutxi-asko iraunkorrak, eratu izan dira urte hauetan. Nafarroan, bertako egoera juridiko, politiko eta linguistikoa begira, Sortzen eta gero Oinarriak (1991)²⁴. Iparraldean, Deiar aurrenik (1990?), eta gero modu finkoagoz, Euskal Konfederazioa (1995)²⁵. Horiekin denekin harreman organikoak eta lankidetzaren nahikoa estua lantzen saiatu da beti EKB, batzutan erraza geratu ez baldin bada ere.

Nabaria izan da azken urteotako EGMn nola AED eta euskara-elkarrekin, batetik, eta EKBk, bestetik, sentiberatasun eta pentsamendu ezberdinak landu izan dituzten, zenbait puntu teoriko nahiz operatibori buruz; eztabaidak eta tirabirak ere gertatu izan dira, baina lankidetzaren puntualari nahiz iraunkorra-goari begira gehienetan gaitzitu ahal izan dira horrelakoak²⁶.

2.2. EZTABAIDA-GAIAK EGMren BARRUAN

EGMren barruan eta horko erakundearen artean eztabaidak ez dira gutxi eta ez funtsik gabekoak izan urte hauetan: Batzuk oso orokorrak, beste batzuk espezifikoak. Horien aipamen laburra besterik ez dut ekarriko hona²⁹:

– Euskararen normalkuntzaren helburua: elebitasuna? eleaniztasuna? euskararen lehentasuna?

– Euskararen funtzioak gaurko mundu eta kultura modernoetan: Beste edozein “kultur” hizkuntzak dituen funtzio denak, ala funtzio mugatuak: nolako mugaketa

– Euskararen erakunde sozialen eta horien ekimenen autonomia erakunde politiko eta publikoekiko.

– Erakunde sozialen eta publikoen arteko harremanak eta lankidetzak nolakoak izan behar duten eta zein baldintzatan gauzatu behar diren.

– Politika orokorraren eta euskararen aldeko planen, programen eta ekimenen arteko erlazioa (baldintzak, lotura, independentzia): edozein politika eta ideologiaren gainetik euskara, ala politika-jarrera guztien barrutik?

– Euskararekiko legeztapenaren arazoa: indarrean dagoen legea onartu, kritikatuz, horren gainean jokatu, egoera legalari uko egin, hori aldatzeko borrokatu?...

– Hizkuntz eskubide kolektiboak eta indibidualak: legeztapena eta norberaren hautapena hizkuntzaren erabilerari dagokionez.

– Euskararen normalkuntzarako plangintzaren (orokor, nagusi, estrategikoaren) arazoa: : horren egokitasuna edota premia. Lehen mailako ala bigarren mailako arazoa?

– Hizkuntz komunitatearen trinkotzea (konpaktazioa) eta (ala?) plangintza orokorra, gizarte osoari eragin ahal izateko (inpaktazioa).

– Lehentasunak euskararen normalkuntzarako bidean: Hiztegiak ala literatur sorkuntza, plangintza ala sorkuntza-eskaintza kulturala.

– Euskararen aldeko mobilizazio sozialen balioa: Korrika, Kilometroak, Herri Urrats, etab.

– Ikastolen funtzioa irakaskuntzaren euskalduntzean: Ikastolak eta eskola publikoa... Eskola nazionala.

– Prentsa eta komunikabide elebidunak ala euskara hutsezkoak?

– Unibertsitate-eredua: elebiduna? Bi unibertsitate: erdalduna eta euskalduna?

– Euskara batua eta euskalkien lekua (horien indartzea).

– Entziklopediaren (Entziklopedien) proiektuen inguruko eztabaida: hizkuntz eredua, Entziklopedia elektronikoaren etorkizuna, etab.

Euskararen inguruko eztabaida horiek denek, gizarte erakundeetako bestelako joera ezberdinekin zerikusirik eduki dute, jakina; sarritan inguruko egoera sozial eta politikoak eraginda edo baldintzatuta etorri dira. Erakunde publikoak tartean gertatu dira maiz eztabaida horietan, horiekiko harremanari buruzko edota horien hizkuntz edo kultur politikari buruzko iritzi ezberdinak zeudelako talde eta elkarte sozialen artean, batetik; baina baita maiz erakunde politiko eta publikoak berak tartekatuta direlako polemikan.

Dena dela, eta batzutan mingarriak eta garratzak, eta aldika gerarazleak, izan badira ere, oro har mugimendu sozialaren heldutasunerako baliagarriak izan direla uste dut eztabaida horiek, gehienak bederen.

2.3. LANKIDETZA-GUNEAK ETA TIRABIRA-PUNTUAK EGMan

Eztabaida horiek eragina izan dute, zalantzarik gabe, EMGren eratzean eta

Euskararen inguruko eztabaida horiek denek, gizarte erakundeetako bestelako joera ezberdinekin zerikusirik eduki dute, jakina; sarritan inguruko egoera sozial eta politikoak eraginda edo baldintzatuta etorri dira.

Batzutan mingarriak eta garratzak, eta aldika gerarazleak, izan badira ere, oro har mugimendu sozialaren heldutasunerako baliagarriak izan direla uste dut eztabaida horiek, gehienak bederen.

27 Euskararen aldeko Gizarte-Erakundeen antolakuntza eta lana ulertzeko moduaren inguruko eztabaidez gorago hitz egin dugu.

Nabarmendu eta azpimarratu beharra dago hemen EGMeko talde, elkarte eta erakundeen artean hogeitabost urteotan egon den lankidetzaz-izpiritu harrigarria eta sarritan inolako talde-interesik gabea.

Ez dago ezkutatzerik lehen hamabost urteetan –1992an jarriko ote dugu itzulgunea? – gertaturiko urruntzeak, zailtasunak eta etenak.

28 Agian osasungarria izango litzateke euskararen erakunde sozialen eta publikoen (edo politikoen) artean eta mugimendu sozialaren beraren barruan “belaunaldi” honetan izandako gatazken, borroken eta batzutan etenen irakurketa lasaia egitea.

29 EHEren eta erakunde publiko zenbaiten arteko tirabirak aipatuak ditugu goian. Nafarroan euskararen legearen eta ondoriozko politikaren inguruan joan dira gatazka nagusienak (Euskal Herria Irratia, euskarako irakaskuntzaren eskaintza, Oinarriak, etab.; Iparraldean erakunde publikoekiko funtsezko borroka euskararen onarpen publikoaren (ofizializazioaren?) inguruan joan da; Iparraldeko Ikastolen barruan duela urteren batzuk eztabaida garrantzak gertatu ziren, Pariseko gobernuaren babesa bilatu ala ez.

30 Horren oihartzun latzak Korrika-n eta bestelako hainbat ekitalditan nabarmendu izan dira

horko talde, elkarte eta erakundeen arteko harreman eta lankidetzan; baita horien eta erakunde publiko eta sozialen arteko harremanetan eta tirabiretan ere.

Aurrenik, ordea, nabarmendu eta azpimarratu beharra dago hemen EGMeko talde, elkarte eta erakundeen artean hogeitabost urteotan egon den lankidetzaz-izpiritu harrigarria eta sarritan inolako talde-interesik gabea: Izpiritu horretan antolatu eta burutu izan dira mobilizazio eta ekintza handienak, hainbat sailtako lagunen, taldeen eta elkarten ahaleginak bateratuz (Bai Euskarari, Korrika, Kilometroak, Nafarroa oinez, Araba Euskaraz, Bizkaiko Ibilaldia, Herri Urrats, Durangoko Azoka, *Argiaren* (edota Euskal Prentsaren) Eguna, Euskararen Eguna(k), Bateginik, *Euskaldunon Egunkaria*, UEMA egunak), eta azken urte honetan, jakina, Bai Euskarari (bigarrena).

Euskararen normalkuntzaren aldeko ahaleginaren ikuspegi global horrekin batera, zabala izan da hogeitabost urteotan, elkarlanaren aldarrikapena eta teorizazioa ekintzara eramateko bideen bilaketa: Erakunde sozialen artean ezezirik, horien eta erakunde publikoen artean ere bai.

Ez dago ezkutatzerik lehen hamabost urteetan –1992an jarriko ote dugu itzulgunea? – gertaturiko urruntzeak, zailtasunak eta etenak. EGMaren parte oso garrantzizkoaren eta erakunde publikoen artean, bereziki erakunde publiko batzuren eta erakunde sozial batzuren artean, urrunaldiak eta tirabirak ezezirik, haserreak, urradurak eta etenak izan dira, batzutan goian aipaturiko eztabaiden ildotik²⁸. Hiru lurralde administratiboetan (EAE, Nafarroan eta Iparraldean) funts eta konnotazio ezberdinak eduki dituzte batzutan gatazka horiek²⁹.

Modu bateko eta besteko batzuk aipatuz, hona hemen zerrenda behin-behinekoa –puntu horietako bakoitzak eskatuko luke irakurketa ahal den hotzen eta finena, hori bai–. Aipatuko ditudan gatazkaguneren batzuk 1993tik honakoak dira, baina baita puntualagoak ere:

– HABE eta AEKren arteko urtetako gatazka luzea –neurri batez agian horien ondorio izan dira AEKren barruko zatiketak ere–³⁰.

– EKBk antolatutako “Euskararen Eguna” eta Gasteizko Legebiltzarretik bultzatu nahi izan zuten “Euskararen Egun instituzionala”.

– Euskarazko egunkariaren inguruko eztabaida eta gatazka, Jaurilaritzako Kultura Sailaren proiektu instituzional-publikoaren eta ekimen sozialeko proiektuaren artean.

– Ikastolen publikazioaren inguruko eztabaidak, haserreak eta borrokak: Hezkuntza sailaren eta Ikastolen elkartearen artekoak, eta ondorioz, ikastolen barrukoak.

– Bertsolarien Elkartearen eta EITBren arteko tirabira eta hilabetetako etena.

– Bateginik kanpainari buruz zenbait erakunde politikoren aldetik harturiko jokabidea eta horrek kanpainaren antolatzaileen artean ere sortu zuen egonezina.

– EUSENOR eta LUR Entziklopedi proiektuen arteko gatazka, itxuraz enpresen arteko konkurrentziaren mailan ipinia, baina bestelako arrazoi sozial eta linguistiko-kulturalak harrotu zituen.

– Kultur politikaren eta diru-laguntzen inguruko eztabaida. Guggenheim

proiektuaren eta horrek euskal kulturgintzako proiektuentzako ekarri zuen diru-laguntzen murrizketak larriagotu eta biziagotu egin zuen (“Kultur kezka” ekimena).

– Ekimen sozialetik abiatutako eta horretan oinarrituriko Egunkariaren eta Jaurlaritzak bultzatu nahi izan zuen egunkari instituzionalaren arteko tirabira.

Gehienetan antzuak eta kaltegarriak izan dira alde batetik nahiz bestetik horrelako tirabira eta borrokak, euskararen aldeko ahalegin instituzional nahiz sozialarentzat, batez ere azpian susmo txar, lehia ilun, salaketa merke –baina gerora garesti– edo boikot itsusiak egon direnean. Sarritan etsigarriak gertatu ziren gainera horrelako dinamikak euskararen aldeko ahaleginean sutsuki eta modu militante hutsez ziharduten jende, talde eta elkarteentzat.

Dinamika hori gainditu nahian, hain zuzen ere, alde batekoek eta beste-koek gogoeta berria egin beharra ikusi zuten; EGMtik betidanik edo aldarrikaturiko elkarrizketaren eta elkarlanaren printzipioak ekintzara eraman beharra atzera ezina zen. “Kultur Kezka” mugimenduak nabari jarri zuen egonezin eta haserrearen punturik latzenaren inguruan eta garaian (1992), hain zuzen, hasi ziren irekitzen elkarrizketarako eta elkarlanerako bide berriak: Gizarterakundearen eta erakunde publikoen artean, batetik, EGMko erakundearen artean, bestetik.

Horren ondorioz, eta premiaren handiaz jabetuz, abiatu zen 1995aren azkenean, Euskararen Unibertsoa mugimendua eta gero Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilu zabala izango zena, Euskaldunon Egunkaria-ko Egunkaria Sortzen elkarteak eraginda.

2.4. EUSKARAREN GIZARTE-ERAKUNDEEN KONTSEILUA

1996aren hasieran bideraturik, beraz, urte osoan Euskararen Unibertsoa izeneko mugimendu soziala joan zen eratuz, eta 1997ko otsailean antolatutako jardunaldiak egiteko bildu zen EGMen ordezkari oso zabala, sekula baino handiagoa. Euskalgintzako talde, elkarte eta erakunde sozial gehienek hartu zuten parte bertan; hango ondorioz nagusia Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua eratzea izan zen. Euskalgintza eta euskal kulturgintzako mundua bateratu eta indar sozial gisa gorpuztearekin batera, gizarteko erakundearen eta erakunde publikoen aurrean itzala eta eragina lantzea da horren zentzu nagusia; horren egitekorik behinena, berriz, euskararen normalkuntzarako ikuspegi sozialeko plangintza orokorra lantzea eta bultzatzea.

3.- EKBren EKARPENA

EKBren sorrera 1982. urteko udaberrian hasi zen. Asmoa: Euskalgintzako sailletako talde, elkarte eta erakunde sozialen arteko koordinazioa. Urtebeteko gogoeta- eta eztabaida-aldiaren ondoren, 1983ko martxoan gizarteratu zen Bergarako UNEDen. Honetara definitu zuen EKBk bere burua: “Euskal Herriko lurralde osoan, euskarazko kultur lanean diharduten talde, elkarte eta erakunde ‘herritarren’ topagune eta elkargunea, guztien artean plataforma zaba-

31 Barne-dokumentua, argitaratu gabea. “Euskararen normalkuntzaren aldeko agiria” aldarrikatuz aurkeztu zuen bere burua EKBk. Horrek ez du zuzenean EKBren beraren helburu eta antolakuntzaz hitz egiten; garai hartako barne dokumentuetan, argitara gabekoetan, daude definituta puntu horiek. Izatez, EKBren antolakuntza-helburuei buruzko lehen dokumentu publikoa Jakin aldizkarian (34. zenb., 1985) argitaraturiko monografikoa izan zen: “Euskararen Plangintzarako Oinarriak”. Bertako 1.3. zerbakiaren daude azalduta EKBren asmoa, helburua, jardunbidea era erakuntza, organigrama eta guzti. “Euskal kulturaren diharduten sail ezberdinetako talde eta elkarte herritarren topagune eta elkargunea izan nahi du EKBk, guztien koordinaziorako zerbitzu gisa”, dio dossierrak, EKBren definizio sintetikoa eman nahian (16. or.). Bergarako aurkezpenearekin irekita utzi zuten talde eta elkarte eragileek EKBren antolakuntzaren bidea; ondoko hilabeteetan joan ziren, hain zuzen, landuz eta zehaztuz horren abiaburuak eta helburuak, horren jardunbidea eta eskabideak, koordinakunde osatu eta gorpuztearekin batera. Bidegitearen eta gogoeta eta eztabaida luze haien fruitua izan zen Jakin-en argitaraturiko dossierra. Horren aurretik, ordea, beste dokumentu bat onartu zuten 1984ko UEUko egunetan Iruñean, non hilabete haietan landuz zihoan gogoetaren sintesia gizarteratu baitzuen. Bertako 8. puntuan dioenez, “...duela urte t’erdi abiatutako prozesuari jarraiki, asmo hura gaur benetako plan eta egitarau bihurtu nahi dugula adierazten dugu. Euskarazko Kulturaren Batzarrearen prozesua aurrera eraman nahi dugu, euskararen defentsarako, normalkuntzarako eta berreskurapenerako”. Bergarako aurkezpenearen berri ematean, zenbait komunikabidek Koordinakunde berria euskararen defentsarako “erresistentzi plataformatzat” aurkeztu zuten. Izatez, defentsaren kontzeptuarekin batera, EKBk hasieratik nabarmendu zituen euskararen normalkuntza eta berreskurapene osoa, EKBren beraren azken helburutzat eta bere jardunbiderako ildotzat.

32 Goian aipaturiko Iruñeko dokumentua honela amaitu zuten ordurarte koordinaturiko talde eta elkarteek, EKB bestelako talde eta elkartei irekita zegoela nabarmentzeko: “Bide horretatik, gaurtik aurrera Euskarazko Kulturaren Batzarrea (E.K.B.) eraikitzearen prozesua bideratuztat ematen dugu, eta horretan esku hartu nahi duten euskal kulturako talde, elkarte, erakunde herritar guztiei egiten diegu dei”. EKBren lehen estatutuak ez ziren 1988rarte etorriko.

33 Horregatik bi ardatz bereizi zituen bere antolakuntzan: Kultur sailak (horietako talde, elkarte eta erakundeak), batetik, eta herri eta auzoetako euskal kulturako organismoak, bestetik (ik. “Euskararen Normalkuntzarako Oinarriak” aipaturiko dosierra, 17-18 orr.).

34 Iruñeko dokumentuaren 4. puntuak “Normalkuntzarako plangintza orokorra” zuen titulutzat, eta honela zioen: “...lehen mailako arazoa dela uste dugu Euskal Herri osoko Administrazioetako erakunde publikoek euskararen normalkuntzarako plangintza orokorra eta sektorialak egitea, herrian euskara eta euskarazko kulturaren alde lanean ari diren erakunde eta mugimenduen esku hartzeaz. Aipaturiko indar, talde eta elkarte herritarrek beren lekua eta parte funtsezkoa izan behar dute plangintza horretan”. Garai hartako EKBren zenbait eztabaida eta artikuluetan argi geratu zen Plangintza orokorra egitea funtsean erakunde publikoei zegokiela eta EKBk ez zuela inola ere horien alternatiba izan nahi; plataforma izan nahi zuen, euskalgintzako gizarte-erakundeen koordinaziorako eta horien ekintza bateraturako. Beste nonbait idatzi izan dudanez, euskararen aldeko mugimendu sozialak bere autonomiari eutsi behar dio, “instituzionalismoaren” eta “alternatibismoaren” tentazioan erori gabe, plangintza orokorra egin eta burutzean bereziki. Horrek ez du izan behar alternatiboa erakunde publikoei begira; baina badi-rudi errebindikatzailea soilik ere ez dela izan behar. Horregatik egokia da Kontseilua lantzen ari den “ikuspegi sozialeko plangintza estrategikoa”.

la eratzeko: bakoitzaren eta guztien eskabideak eta ekintzak koordinatzeko eta indartzeko, eta euskararen eta euskal kulturaren plangintza orokorra –beraiei dagokienez– batean lantzeko eta aurrera eramateko”³¹.

Eskola, Unibertsitatea, UEU, Helduen euskalduntze-alfabetzea, Aldizkari eta Prentsa, Liburugintza, Antzerkia, Bertsolaritza eta Administrazio publikoa sailetako talde eta elkarte hainbat koordinatu ziren hasieratik EKBn, bestelako euskara-elkarte zenbaitekin batera, EHE tarteko³².

Euskalgintza eta euskal kulturagintzako talde, elkarte eta erakundeak koordinatzeko sortu zen, beraz, EKB. Sail bakoitzeko eta sailen arteko koordinazioa ezezki, herrietan ere bertako sektore ezberdinen arteko koordinazioa bultzatu nahi izan du hasieratik³³. Aurrena neurri batean lortu baldin badu ere, bigarrena (herrietako EKBak) gutxiago lortu ahal izan du.

Koordinazioa bera ez zuen EKBk inolako helburutzat hartu, euskararen normalkuntza eta berreskurapen osorako plataforma sozialtzat baizik, eta horretarako baliabide nagusitzat aldarrikatu eta eskatu izan zuen plangintza orokorra³⁴. *Jakin* aldizkarian argitaraturiko “Euskararen Plangintzarako Oinarriak” dossierarren gai funtsezkoa horixe izan zen, hain zuzen ere³⁵. Bere III. Batzorde Nazionalan (1995eko abenduan), plangintza orokorra aldarrikatzea eta eskatzearen fasea gaudituz, eta bere egitasmo praktikoaren ildo nagusitzat hartu zuen EKBk, bere aldetik plangintza hori landuz joatearena.

Sektore eta erakundeen arteko koordinazio-lanaz gain, azterketen (kongresuak, inkestak, etab.), errebindikazioaren (Eman Euskarari berea, etab.), sustapenaren (Euskaldunon Egunkaria, UEMA, etab.) eta mobilizazio eta ekitaldi kulturalen (Euskararen egunak, Bateginik kanpaina, etab.) ildoak landu ditu EKBk. Hainbat zerbitzu eratu ditu gainera, koordinazioari begira, eta euskalgintzako munduaren laguntzarako: *Bat* Soziolinguistikako aldizkaria, Dokumentazio-zerbitzua (Datu-bankua eta Prentsa-buletina).

3.1. EKBREN ARDATZ TEORIKOAK

Gorago esandakoak nolabaiteko eskematara ekarri, lau ardatz teoriko funtsezko hauek bideratu dute EKBren 16 urteko ibilbidea eta jardunbidea:

1. Helburua: Euskararen normalkuntza eta berreskurapen osoa. Berreskurapen juridiko- instituzionala, kulturala, soziala, pertsonala.

2. Subjektua: Normalkuntzaren subjektu behinena Herria eta herritarrak dira. Herritarrak dira hizkuntza jabe, eta horren normalkuntza eta berreskurapenaren subjektu nagusia. Horregatik Euskararen berreskurapenerako mugimendu sozial gero eta zabalagoak eta biziagoak garrantzia guztiz berezia du.

3. Bidea: Euskalgintzako talde, elkarte eta erakunde sozialen koordinazioa. Hainbat talde, elkarte eta erakundetan dago gorpuztuta –eta banatuta– euskararen aldeko herri-mugimenduan: kultur sektoreen, lurraldeen arabera, helburuen eta lan-eremuen arabera. Horien arteko koordinazioa nahitaezkoa da, euskararen normalkuntzarako subjektu sozial sendoa eratuko bada³⁶.

4. Tresna: Normalkuntzarako Plangintza Orokorra (orain plangintza nagusia, edo plangintza estrategikoa ere deitua). Nahitaezkoa da plangintza orokorra, euskararen normalkuntza-politika eta ekintza arrazionaldu eta eraginkortuko bada.

EKB ez da, beraz, ez helburua eta ez subjektua. Helburua lortzeari begira, gizarte-mugimendua eta indar sozial ugariak koordinatzeko ahalegina izan da EKBrena.

3.2. ZER IZAN DA EKB EUSKALGINTZAREN ALORREAN ETA GIZARTEAN?

1. Aurrenik erreferentzia garrantzizkoa izan dela esan daiteke euskalgintzaren munduan: erreferentzia soziala eta nolabait eko erreferentzia politikoa ere bai, hizkuntz politikarentzakoa, alegia.

2. Erreferentzia izateaz gain, bateragunea izan da EKB, euskalgintzako hainbat lagun, indar eta erakunde sozialentzat, sektore sozial eta kulturalen arteko eztabaida, analisi kritiko eta lankidetzari eraginez, koordinaziorako zerbitzuak eratuz eta sektoreetako ahaleginak bestelako sektoreen indarrak indartuz.

3. Erreferentzia soziala eta bateragunea izateaz gain, ekimen-tresna baliozkoa izan da, euskararen normalkuntzarako herri-mugimendu edo mugimendu sozialaren zerbitzutan: a) Euskalgintzaren munduaren formazio-lana eratuz (kongresuak, ikastaroak, diplomaturak, materialak); b) Zuzeneko ekintzak antolatuz, euskararen aldeko jaberazpen sozialari, euskararen defentsari, horren sustapen eta normalkuntzari begira (Euskararen Egunak, Bateginik, manifestaldiak, iritzi-kanpainak, komunikabidetako lana, etab.); c) Euskalgintzaren eta beste Hizkuntza minorizatuetakoa herrien arteko harremanak eratuz eta bultzatuz (HIZGABE, CONSEU, Nazioarteko buletina, ONUren aurreko ekintza jurdikoa Genevan).

EKBk eginkizun guztiz berezia bete du, gizartearen partaidetza, mugimendu sozialaren eta horren koordinatu eta artikulatu beharra aldarrikatzeko eta neurri batez behintzat koordinazioa burutzeko, euskararen defentsarako eta berreskurapenerako.

3.3. EKBK LORTUA ETA LORTUGABEA

EKBren ekarpena hiru mailatan ipini behar da:

a) EKBren lorpen konkretu eta ikusteko modukoei begiratzean, ez dago aipatzeko obra handi ikusgarri eta iraunkorrik, abian ipini dituen eta bizirik dirauten zerbitzuez kanpo: BAT aldizkaria, Dokumentazio-basea eta Buletina, bestelako buletinak...

b) Dena dela, euskararen normalkuntzaren bidean azken 16 urteotan erdietsiriko hainbat lorpenetan partaidetza bizia eta ekarpen espezifikoak edukitu du EKBk, sektore bakoitzari bere antolakuntza eta koordinazio-zerbitzua eskainiz bereziki: UEMA, Euskaldunon Egunkaria, Irakaskuntza ereduaren gorakada, besteak beste. Neurri handi batez euskalgintzako herri-mugimenduaren lorpenak dira horiek, eta EKBk ere badu meriturik horietan.

c) EKBren lorpenik handienak eta espezifikoak, ordea, zailagoak dira ikusten eta neurtzen: Herritarren euskararen aldeko kontzientizazioa, horien partaidetza bultzatzea, euskararen normalkuntzaren arazo sozio-linguistikoak plazaratzea, erakunde sozialen eta kultur sektoreen arteko koordinazioa eta

Erreferentzia izateaz gain, bateragunea izan da EKB, euskalgintzako hainbat lagun, indar eta erakunde sozialentzat, sektore sozial eta kulturalen arteko eztabaida, analisi kritiko eta lankidetzari eraginez, koordinaziorako zerbitzuak eratuz eta sektoreetako ahaleginak bestelako sektoreen indarrak indartuz.

35 Geroko EKBren estatutuetakoa 2. artikuluan ondo azpimarratuta ageri da orain arte nabarmendu dugun EKBren elementu definitzaile zenbait: "El objetivo general de la Asociación es la coordinación y conjunción de quienes trabajan en la defensa, promoción y recuperación de la lengua vasca en los diversos sectores culturales con vistas a una planificación general para la normalización del euskara en el contexto de un renacimiento cultural vasco".

36 EKBk proposatu eta landuriko euskararen aldeko talde, elkarte, eta erakunde sozialen arteko koordinazioaren –geroago konfederazioaren– bidea teorizatu eta praktikara eramatean, erakunde publikoekiko autonomia, harreman dialektikoa, elkarriketa eta elkarlana nabarmendu izan ditu EKBk. Tartean proposatu izan da bestelako formularik ere, euskararen aldeko ahalegin soziala bermatzeko eta gizarte-erakundeen indarrak bateratzeko: Bereziki aipatzeko dira "Euskararen alderdi politikoa" eta "Normalkuntzaindia" izeneko proposamenak. Ez batak eta ez besteak izan zuten aurrerabiderik.

Ez du lortu, jakina, bere azken helburua: Euskararen normalkuntza eta berreskurapen osoa — lekutan gaude oraindik helmuga horretatik! —. Ez du lortu horretarako etengabe aldarrikatu duen plangintza orokorra martxan ipintzea.

Duela 16 urteko EKBren lehen agiriko eskabidea da, erakunde publikoei zuzendua, honako hau: "Euskararen normalkuntzarako plangintza orokorra landu dezatela lehenbaitlehen".

lankidetzat eratzea. Euskalgintzako mugimendu sozialaren koordinazio eta artikulazioaren eta Euskararen normalkuntzarako Plangintza orokorraren asmoa eta beharra gizartearen barneratzea, eta ildo horiek hainbat urrats konkretuz urratzea: horra, EKBren eraginik sakonena eta lorpenik emankorrena.

Baina zer gertatu da EKBk hasietarik eta beti izan helburu handiei buruz?

Ez du lortu, jakina, bere azken helburua: Euskararen normalkuntza eta berreskurapen osoa —lekutan gaude oraindik helmuga horretatik!—. Ez du lortu horretarako etengabe aldarrikatu duen plangintza orokorra martxan ipintzea. Ez du lortu normalkuntzaren lehen urratsa eta plangintzaren oinarria den euskararen ofizializazioa ere Euskal Herri osorako. Areago, ez du lortu bere hurbileko eta zuzeneko helburua ere: euskalgintzako indar eta erakunde sozialen koordinazio handia, benetako "batzar" zabala.

Baina horra: EKBri eta berorren erreferentzialtasun sozialari eta berak urte luzetan eginiko lanaren ondorioa, EKB nolabait gainditu duena, ez ukapenez, baieztapenez baino: a) Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua, Euskararen Mugimendu sozialaren adierazgarri eta lekukorik zabalena eta aberatsena, jarduneari; b) Euskararen Normalkuntzako ikuspegi sozialeko Plangintza estrategikoa bidean.

Dena dela, EKBren ibileraren eta jardunaren ildo gidari izan diren bi ideia nabarmendu nahi nituzke berriro hemen: A) Plangintza Orokorra, eta B) Herri-Mugimendua, Euskararen normalkuntzari eta berreskurapen osoari begira.

3.4. PLANGINTZA OROKORRA

Duela 16 urteko EKBren lehen agiriko eskabidea da, erakunde publikoei zuzendua, honako hau: "Euskararen normalkuntzarako plangintza orokorra landu dezatela lehenbaitlehen".

Plangintza orokorra landu beharra ez da izan, ordea, ideia soila, edota aldarrikapen hutsa, edota erakunde publikoei ipinitako eskabidea gogaikarriren bat. Bidea irekitzen saiatu da EKB: "Euskararen Plangintzarako Oinarriak" dossiera (1985); "Herri-Administrazioen Hizkuntz Plangintza" izeneko Kongresua, Europako Bureau —HIZGABE— eta Jaurlaritzarekin batera burutua (1988); "Planifikaziorako orientabideak" (1988), hizkuntz plangintzari buruzko lan teoriko eta aplikazio metodologikoak (UEU, BAT aldizkaria, etab.); "Erakundearen hizkuntza normalkuntza Planetarako eskuliburua eta Indexplak aplikazio informatikoa" (Topagunearekin batera, 1998); EKBren plangintza batzordearen lanak; Plangintza ikastaro sektorialak, etab. Jaurlaritzako Plangintza Nagusian ere EKBk erakunde bezala parte hartu nahi izan zuen.

1995eko Nazio-batzordearen bileran Plangintza Orokorrari ekitea erabaki zuen EKBk, eta horixe hartzea aurrerako bere hildo nagusizat. Helburu horrekin egin zuen talde zabal batek bilera Katalanaren Plangintzaren arduradunekin. Handik hilabete gutxira Euskararen Unibertsoaren ideia hasi zen erne-tzen.

Horren erabaki funtsezkoenetako bat "Ikuspegi sozialeko Plangintza Estrategikoa" egitea izan zen 1977ko jardunaldietan. EKBk partaidetza bizia eta zabala izan zuen Euskararen Unibertsoaren ernealdian eta gero Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren eraikuntzan. 1998an Gasteizko Politika

Idazkaritzak "Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia" burutu zuen; Kontseiluak abiatua du "Euskararen Normalkuntzarako ikuspegi sozialeko plangintza estrategikoa". EKBren urte luzeetako aldarrikapenak eta ahaleginak ondorio-rik eta fruiturik ekarri dute.

3.5. HERRI-MUGIMENDUA ETA HORREN ARTIKULAZIOA

"Euskal aginte politikoaren eta Administrazio publikoaren erantzukizuna eta egitekoa da aurrenik eta nagusienik plangintza hori egitea eta gauzatzea" (...) "Euskalgintzako eta euskal kulturgintzako indar herritarren protagonismoa baieztatu (behar) da euskararen normalkuntzarako; era berean, horien lehentasuna baieztatu beharra dago normalkuntzaren edonolako plangintza egokia egiterakoan"³⁷.

Gorago aipatu dugu EKBren pentsabidean eta jardunbidean izan duen lehentasuna herritarren partaidetzak euskararen normalkuntzarako eta berreskurapenerako. Euskararen mugimendu soziala eta horko erakundeen koordinazioa, horien eginkizuna eta jokabidea gizarte osoari buruz, horien eta erakunde publikoen arteko harremana: horiek izan dira EKBren analisi, azterketa- eta eztabaida-gai nagusiak. Bizi izan dugun egoera sozio-politiko katramilatua barruan, bere okerrak egin eta kontradikzioak agertu baditu ere, ekarpen teoriko eta praktikoa oso baliozkoa egin duela uste dut EKBk Euskararen berreskurapenerako mugimendu sozialaren alorrean.

Aipatzekoa da hemen 1992aren udaberrian abiatu eta urtebete luzez EKBk HPINekin izan zituen elkarrizketak (zortzi bilera), zuzenean, bi erakundeen arteko harreman eta elkarlan egokiagoa bideratzeko; baina oro har, euskalgintzako erakunde sozialen eta erakunde publikoen arteko lankidetzaharremanak nolakoak izan beharko luketen argitzeko. Zoritxarrez, bi erakundeek landu, burutu eta onarturiko —ez sinaturiko— "Elkarlanerako Agiriaren" berri *Euskaldunon Egunkariak* eman ondoren sorturiko zalapartak —nire ustez faltsuak— nabarian utzi zuten, artean susmo txar eta aurreiritzi askotxo garbitu beharko zirela eta inertzia hainbat alde batera utzi, elkarlana konfiantzaz gorpuzteko, beti ere erakunde sozialek beren autonomiari eutsiz.

3.6. SINTEZIA NAZIO-BATZARRETAN

EKBren barne-organoa izan gabe, horren ekimen nagusietakoak Nazio-Batzarre irekiak izan dira, non EKBn koordinaturik ez zeuden hainbat lagunek eta taldek hartu izan baitute parte. EKBren historiaren benetako mugarriak izan dira horiek, eta guztiz adierazgarriak dira hori ulertzeko. Lau urtez behin edo egin izan ditu Batzarre horiek:

— 1984: Euskararen Plangintza-Kongresua (gero euskalgintzako sektoreen arteko jardunaldi eta EKBren lehen Batzarre nazional bihurtua); bi fasetan burutu zen (Eibar eta Iruñea, UEU). Horren ondorioz etorri zen Euskararen Plangintzarako Oinarriak dossiera.

— 1988, martxoak 6, II. Nazio-Batzarrea (Zorroaga): bertan modu konkretuagoan aztertu zen Plangintza Orokorrena, "EKBren Hizkuntz politika" ize-

Bizi izan dugun egoera sozio-politiko katramilatua barruan, bere okerrak egin eta kontradikzioak agertu baditu ere, ekarpen teoriko eta praktikoa oso baliozkoa egin duela uste dut EKBk Euskararen berreskurapenerako mugimendu sozialaren alorrean.

37 Euskararen Plangintzarako Oinarriak dossiera, aip. lib., 27. or..

2000. urtean izan beharko zukeen 5. Nazio-Batzarreak; baina hori ez da izango Euskal Kulturaren Batzarrearena, Euskararen Unibertsoarena baino; eta izan daiteke agian Euskal Plangintza Estrategikorako Kongresua, Kontseiluak asmotan duena.

Euskararen aldeko herri-mugimendua, euskararen lurralde historikoa ozeanoren azpitik urgaineratzeko ahalegin eta borroka epikoa dela esan genezake.

38 Horien erabileraz gogoetaren bat egin ahal izan nuen aipaturiko EHUko Udako ikastaroko hitzaldian. Hura irakurriko duenak horrelako terminologiaren konparazio taula bat ere aurkitu ahal izan du 187. orrialdean.

neko txostenean oinarrituta.

— 1992, III. Batzarrea (Zorroaga): "Ahaleginak bilduz, etorkizuna lan-tzen"... Euskararen mugimendu soziala indarberritzeko eta EKBren koordinakundea zabaltzeko ahalegin handia ireki zen. Horrekin batera abiatu ziren EKBren eta Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiaren arteko elkarriketak, harremanak normaldu eta elkarlana bizkortzeko.

— 1996aren hasieran edo egin beharko zen 4. Nazio-Batzarrearen, ordurarte-ko erritmoari jarraituz. Baina otsailean Miramar-en Euskararen Unibertsoa abiatzeko lehen bilera izan zen, eta handik urtebetera Hotel Costa Vascan egindako Jardunaldiak EKBk huts egindako 4. Batzarrearen lekua betetzera etorri zirela esan daiteke, Euskalgintzaren Mugimendu sozialean.

— 2000. urtean izan beharko zukeen 5. Nazio-Batzarreak; baina hori ez da izango Euskal Kulturaren Batzarrearena, Euskararen Unibertsoarena baino; eta izan daiteke agian Euskal Plangintza Estrategikorako Kongresua, Kontseiluak asmotan duena.

3.7. ARTXIPIELAGOTIK LURRALDEA OSATZERA

Euskararen lurraldearen mende luzetako historia larria, horren urperatze kosmikoaren historia da: erdaren ozeanoan urperatzea, alegia. Euskaldunen gizartea erdaren urpean itoaz zihoan erremediorik gabe, Euskararen eremu lehorrak murriztuz eta murriztuz zihoazelarik.

Zorionez, zenbait sektore sozialek eta taldek lortu izan dute, hala ere, urperatu gabeko goialdetan euskarari bizirik eustea, edota ikasi izan dute urpean ere arnasa hartzen; baina gero eta irla bakanagoen artxipielaogaren itxura hartzen ari zen euskararen gizartea.

Euskararen aldeko herri-mugimendua, euskararen lurralde historikoa ozeanoren azpitik urgaineratzeko ahalegin eta borroka epikoa dela esan genezake. Eta euskalgintzako talde, elkarte eta erakunde sozialak dira sarritan urpetik bizirik azaleraturiko irla berriak.

EKBren lana artxipielaogoko irlen arteko lankidetzeta eta "merkataritza" sustatzea izan da, horretarako zubiak eta bestelako komunikabideak eratuz, lurralde sozial berriak urpetik ateratzeko ahaleginean.

Kontseiluaren egitekoa izango da euskararen artxipielaogoko irla guztiak zubiz nahiz bidez lotuz joatea, urpean geratzen diren lurrak urgaineratuz, eta eremu sozial guztiak bateratuz. Horrela joango da Euskararen lurraldea berri-oro osotuz, eta euskararen unibertsoa berreraikiz.

3.8. AZKEN GOGOETA

"Euskararen aldeko mugimendu sozialaz" mintzatu gara, eta, beraz, euskararen aldeko (talde, elkarte eta) erakunde sozial edo herritarrei buruz. Ez naiz hemen abiatuko erakunde "herritar" ala "sozial" (gizarte erakunde), "herri-mugimendu" ala "mugimendu sozial" den egokiena³⁸. Irakurlea konturatu ahal izan denez, bata zein bestea erabili ditu orain arte.

Baina zerbait esan nahi duen "euskararen aldeko" espresioaren adierari buruz gogoeta xumea egin nahi nuke hemen, garrantzizkoa iruditzen zaidala-

ko azken urteotako mugimendu soziala ulertzeko eta balioztatzeko. Izan ere, azken helburutan eta helbidetan joera ezberdinak nabariak izan arren horren barruan, funtsean eta oro har honako guztiok adierazi eta markatu dituela uste dut "Euskararen aldeko" horrek definitu duen mugimendu soziala: Euskararen defentsa, errebindikazioa, festa adierazi du; areago, euskaraz bizitzeko ahalegina adierazi du, euskara ikasiz edo irakatsiz, euskaraz ibiliz edota euskara erabiliz; baina azken batez euskalgintza eta euskal kulturagintza esan nahi du: eguneroko lana, ekimena eta produkzioa, euskarazko nahiz euskararen irakaskuntzan, euskarazko hedabidetan eta liburugintzan, euskararen ikerketa eta arauketan, euskarazko sorkuntza artistikoan eta euskarazko baliabideak eratzen, euskara-zerbitzu publiko zein pribatutan. Jarrera eta jarduera ezberdinetatik osatutako Euskararen aldeko mugimendu herritar edo sozialak euskararen bizi- eta lan-dinamikan izan du funtsean bere oinarri eta indar nagusia. Horrela aberatsa eta ugarria delako, eta praktikoa delako, eta ez errebindikatzaila soilik, izan du eta dauka orain ere halako indarra euskararen aldeko herri-mugimenduak.

Aberatsa eta ugarria delako, eta praktikoa delako, eta ez errebindikatzaila soilik, izan du eta dauka orain ere halako indarra euskararen aldeko herri-mugimenduak.

4. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK

Gogoeta hauek amaitzeko zilegi bekit goian aipaturiko hitzaldiaren, EHUren Udako ikastaroan emandakoaren, azken paragrafoak hona ekartzea. Atzera begira egindako gogoeta-azterketa horren ondorioz baliozkoena aurrera, 3. milurtekoari, begira jartzea delakoan.

4.1. HIRU MAILATAKO URRATSAK

Euskararen aldeko gizarte.-mugimendua berritu, indartu eta zabaltzeko, hiru urrats egin beharreko formulatu nituen orduan. Hauek ziren.

1. Euskalgintzako erakunde herritarren arteko akordio zabala, euskararen berreskurapen osorako mugimendu sozial nazionalari benetako gorputza emateko

2. Euskararen aldeko mugimendu sozialak eraginda, bestelako erakunde eta indar sozialen, ekonomikoen, politikoen, etab.en arteko hitzarmen soziala, maila ezberdinetakoa, euskararen berreskurapen osoari eta erabilerari begira-koa

3. Erakunde publikoen eta euskalgintzako erakunde herritarren arteko elkarlanerako plataforma zabala, Administrazioaren hiru mailatan "Euskararen Kontseilu Sozialaren" forma hartuko lukeena.

Horietako bi aipaturiko *Bat* aldizkariaren inkestan jaulkita daude alderdi politikoen ahotatik: EUEk "Kontseilu nagusia" eskatzen du, hizkuntza eta kultur adostasunaren oinarriak finkatzeko; HBk, berriz, euskararen aldeko "Itun nazionala" eskatzen du. Hala ere, horrelako proposamenak ez dituzte alderdi politikoei eraman behar, eta bai euskararen aldeko mugimendu sozialak, erakunde publikoekin elkarlanean eta alderdi politiko eta bestelako indar eta organismo sozial eta pribatuen erdigunean jarrita.

Azken urteoi begiratuta, badirudi zentzuko samarrak zirela 1993 jaulkitako iradokizun haiek, eta neurri handi batez errealtate bihurtzen ari

direla azken urteotan.

4.2. KONFIANTZA ETA ITXAROPENA

Arrakastaren esperantzan eta indar kolektiboaren konfiantzan oinarritzen da edozein mugimendu sozial. Egonezina eta insatisfakzioa ez dira nahikoa, mugimendua indartzeko. Horregatik, euskararen berreskurapen osoaren mugimendu soziala zabaltzeko eta indartzeko, nahitaezkoa da helburuari buruzko, hori lortzeko indarrei buruzko, horretarako ahaleginen emankortasunari buruzko konfiantza suspertzea eta mantentzea, ez noski hitzez eta publizitatez bakarrik eta bai aurrerabidean egindako benetako urratsen gain. Hortik sortuko da kemen berria ere, aurrera jarraitzeko. Etsipena izango litzateke okerrenetarikoa, euskararen aldeko mugimendu soziala zabaldu eta indartzekoan.

Euskararen Gizarte-Erakundeen Kontseiluak berak eta horrek eragindako dinamika sozialak konfiantza eta itxaropen berriak suspertu dituela esan daiteke 3. milurtekoari begira.

ERANSKIN BIBLIOGRAFIKOA

Euskararen aldeko mugimendu herritar edo sozialari buruzko gogoeta kritiko eta historiako material askotxo argitaratu da azken urteotan. Titulu kolektibo eta indibidualen zerrenda behinbehinekoa eskaintzen dugu hemen; gogoeta-eta azterketa-material berbera ondorengo kapitulu batean baino gehiagotan aipaturik ager daiteke, lan kolektiboekin batera autoreak ere ematen ditugunez, eta hitzaldiak eta ikastaroak argitalpen unitarioran nahiz aldizkaritan argitaratuta daudenez.

1. Liburuak eta aldizkarien zenbaki monografikoak

Euskararen Plangintzarako Oinarriak: Jakin, 34 - 1985 (5-176 orr.)

Euskal Herrian Euskaraz. Euskararen defentsarako herri mugimendua: AURRERA (Zenbaki berezia, 1990, 100 orr.)

Euskararen Herri-mugimendua : BAT, 6 - 1992 (23-93 orr.)

Eztabaidarako materialeak (Euskal Herrian Euskaraz, u.g.), 63 orr.

Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak: EHUren Udako Ikastaroko hitzaldien bilduma (1993), titulu berberarekin EHUK argitaratua, 1998 (210 orr.)

Herrietako Euskara Elkarteei Buruzko Jardunaldiak - 1: JAZTEN, 8 - 1993 (78 orr.)

Herrietako Euskara Elkarteei Buruzko Jardunaldiak - 2: JAZTEN, 9 - 1993 (35 orr.)

Euskararen gizarte-mugimendua: BAT, 16 - 1995 (17-89 orr.)

Geroa orain erein (Euskal Herrian Euskaraz, 1998 (37 orr.)

Bat Soziolinguistika aldizkariak sail berezia eduki zuen zenbait urtetan, "Euskarak elkarturik" izenekoa, non euskalgintzako elkarte eta erakundeen berri eman baitzuen.

2. Ikastaro eta jardunalditako hitzaldi eta ekarpenak

AED: "Herrietako Euskara Elkarteei buruzko Jardunaldiak" (AEDren 10. Urteburuan, 1993)

EHU - Udako Ikastaroak: "Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak" (1993) (goian liburu bezala aipatua)

EKB: "Erakunde publiko eta erakunde herritarren arteko elkarlana hizkuntzaren normalizazioan", in: Herri-administrazioen hizkuntz plangintza, Haee-IVAP, Oñati, 1988, 317-324.

EKB: "Mugimendu sozialaren koordinaketaren berregituraketa eta estrategia-ardatzei buruzko proposamena" (1992ko Nazio-batzarreko txosten nagusia; bere horretan behintzat argitaratu gabea)

UNED: "Euskal Soziolinguistika. Bergara 90" izeneko ikastaroak barruan kapitulu bat izan zuen "Herri-mugimendua: Atzera eta aurrera begira" gaiari buruzko (1990). (N^oik dakidanez, ez zituzten hango hitzaldiak argitaratu)

Euskararen Unibertsoa: Gogoeta-saila (Topaketak) (1996-1997) (

IRUÑEKO UDALA: "Iruñeko Euskararen aldeko mugimenduaren topaketak" (1985) (Nik dakidanez, ez zituzten argitaratu)

UEU: "Euskararen gizarte-mugimendua etorkizunean: edukiak eta egiturak" (1995) (BAT aldizkarian argitaratuak, ik. goian)

3. Aldizkarietako artikuluak

Agirrebaltzategi, Paulo: "Euskararen aldeko gizarte mugimendua (EGM): zeregina eta artikulazioa", in: Bat.Soziolinguistika aldizkaria 16 (1995) 17--30

Agirrebaltzategi, Paulo: "Euskararen aldeko mugimendu sozialaren zeregina etorkizunean, in: Hizkuntzen aldeko mugimendu soziala (Donostiako Udako XII. Ikastaroak. 1993ko Uztaila), Euskal Herriko Unibersitateko Argitalpen Zerbitzua, 1998, 185-210

Agote, Imanol: "Euskararen aldeko mugimendu soziala", in: Bat.Soziolinguistika aldizkaria 16 (1995) 83-88

Amonarriz, Kike - Arruti, Iñaki: "Euskararen aldeko mugimendu sozialak gaur egun", in: Hizkuntzen aldeko mugimendu soziala (Donostiako Udako XII. Ikastaroak. 1993ko Uztaila), Euskal Herriko Unibersitateko Argitalpen Zerbitzua, 1998, 147-183

Arregi, Mikel - Etxalar, Elena: "Euskararen aldeko mugimendu sozialaren zeregina eta artikulazioa etorkizunean: edukinak eta egiturak", in: Bat.Soziolinguistika aldizkaria 16 (1995) 57-66

Arruti, Iñaki: "Euskara Elkarteak: jatorria eta norabidea", in: Bat.Soziolinguistika aldizkaria 16 (1995) 31-47

BAT: "Politikariak euskararen herri mugimenduaz mintzo", in: Bat. Soziolinguistika aldizkaria 6 (1992) 69-93

EHE: "Euskararen gizarte mugimendua", in: Geroa orain erein, u.g., l.g., 15-19

Ezkerra, Maddalen - Fernandez, Iñaki: "Euskararen gizarte mugimendua eta euskararen normalkuntza", in: Bat.Soziolinguistika aldizkaria 16 (1995) 49-55

Iñigo, Joxe: "Euskararen gizarte mugimenduaren bilakaera. Herrietako euskara elkarten kasua", in: I. Jardunaldiak soziolinguistikaz, Bilbo, 1992, 203-217

Intxausti, Joseba: "Talde euskaltzaleen garapen historikoaz (XVI-XX)", in: Hizkuntzen aldeko mugimendu soziala (Donostiako Udako XII. Ikastaroak. 1993ko Uztaila), Euskal Herriko Unibersitateko Argitalpen Zerbitzua, 1998, 17-56

Muniozguren, Fernando: "Herriaren eskuhartzeaz euskararen berreskurapenean", in: Bat. Soziolinguistika aldizkaria 6 (1992) 43-51

Odriozola, Joxe Manuel: "Euskararen Herri-mugimendua: teoria eta praktikaren arteko uztardura", in: Bat. Soziolinguistika aldizkaria 6 (1992), 25-41

Oronoz, Mixel: "Euskaltzaleen Biltzarretik Euskal Konfederaziora", in: Bat. Soziolinguistika aldizkaria 16 (1995) 67-82

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

*gizarte-ekintza
obra social*

